



## SETEM HEGO HAIZEAK KOOPERANTE BAT HAUTATUKO DU KOLONBIARAKO

### KONTRATUAREN IRAUPENA

Berehalako laneratzea. Aldi baterako bitarteko kontratua (ordezkapena).

### LANALDIA:

Lanaldi osoa.

### SOLDATA

1805.44 € gordin hilean (14 ordainsari urtean) + lantoki-osagarria.

### BALDINTZAK

- Unibertsitateko diploma edo gradua.
- Garapenerako lankidetzaren arloko berariazko prestakuntza osagarria.
- Genero-arloko berariazko prestakuntza (froga daitekeena). Harreman ekitatiboekiko sentsibilitatea, konpromisoa eta jarrera pertsonala.
- GGKE batean esperientzia izatea (froga daitekeena) nazioarteko lankidetzako proiektuak identifikatzen, formulatzen eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiten: urtebete egoitzan eta urtebete kooperante-lanetan.
- Esperientzia izatea EAeko administrazioen diru-laguntza publikoak kudeatzen.
- Ofimatika.
- Marko logikoaren ikuspegia ongi ezagutzea.

### BALIOZTATUKO DIRENAK

- EGA mailako euskara.
- Kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearen arloko ezagutzak eta inplikazio pertsonala.
- SETEMen printzipioak eta jarduera ildoak ezagutzea.
- Linux ingurune ofimatika.
- Autonomia eta ekimena.
- Talde-lanerako gaitasuna.
- SETEM Hego Haizearen printzipio estrategikoekin bat etortzea.
- Norberaren jarduera SETEM Hego Haizearen eta antolakunde kideen artean adostutako printzipio eta estrategietara orientatzeko gaitasuna.

### BETEKO DIREN EGINKIZUNAK

- Kolonbiako tokiko antolakundeekin batera, SETEMek lagundutako proiektuen koordinazioa bere gain hartzea, ardurapeko eremu geografikoetan.
- Proiektuak formulatzeko prozesua koordinatzea eta proiektuok diru-laguntza publikoen deialdietara aurkeztea (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, foru-aldundiak eta udalak).
- Proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko jardueretan parte hartzea.
- Tokiko antolakundeekin batera, proiektuetan aldaketak eragiten dituzten egoerak aztertzea. Funtsezko aldaketak egiteko eskaerak egitea, beharrezkoa denean.
- Tokiko antolakundeei laguntzea tokiko erakundeekin harreman sendoagoak izan ditzaten, proiektuarentzat babes handiagoa lortzeko. SETEM ordezkatzeko esleitzen zaizkion erakunde arteko bilera eta espazioetan.
- Tokiko antolakundeekin batera, proiektuetan inplika litezkeen aktore eta eragile berriak identifikatzea.
- SETEM Hego Haizearekin etengabeko elkarrizketan egotea, proiektuaren egokitasuna bermatzeko, antolakundearen gainerako estrategia dagokienez.

**Interesdunek –abenduaren 10era arte, hura barne– aurkezpen-gutuna eta curriculum bidali beharko dituzte posta elektronikoko honetara: [direccion.euskadi@setem.org](mailto:direccion.euskadi@setem.org)**